

NOREN-NONGO

1.-Aukeratu hitz zuzena esaldi bakoitzean, NOREN kasua kontuan hartuz.

- *Sukaldearen/Sukaldeen* ondoan dagoen gela *Edurneren/Edurnearen* logela da.
- Nahiago dut *marrubiaren/marrubiren* zaporea *limoiren/limoiaren* zaporea baino.
- *Liberen/Libeen* begiak urdin-urdinak dira; *Joneen/Jonen* begiak, aldiz, beltz-beltzak.
- Hemengo *basoen/basoren* eta *zelairen/zelaien* jabea ez dakigu nor den.
- Gaur hainbat *hiriren/hiriaren* eta *herriaren/herriren* izenak ikasi ditugu.
- *Autoaren/Autoren* gorpila zulatuta dago, eta *bizikletaren/bizikletaen* frenoak, hondatuta.

2.-Osatu elkarrizketa NONGO kasuaren –(e)ko eta –(e)tako deklinabide markekin.

IKER PAISAIA ZALEA

- Aizu, Iker! Etxe___ atea ongi itxi duzu?
- Bai! Baita atari___ atea ere.
- Eta nora joango zara lagunekin azkenean? Inguru___ mendi___ paisaiak ikustera?
- Bai, edo bestela pilotaleku atze___ zelaira.
- A, bueno, bertatik ere hainbat leku___ paisaiak ikusten dira.
- Bai, hala da. Ea argazki dezenteak ateratzen ditugun!

3.-Aukeratu hitz zuzena kasu bakoitzean:



- *Janireren/Janireko* ileko goma lurrean aurkitu dut.
- *Sagarraren/Sagarreko* haziak ez dira jan behar.
- Ez dakit non dagoen *Bizkaiko/Bizkaia*ren aireportua.
- *Munduaren/Munduko* inguruan Ilargia dabil biraka, gelditu gabe.
- *Lurraren/Lurreko* hainbat tokitan egon naiz: Frantzia, Kanada...

4.-Aukeratu hitz zuzena kasu bakoitzean:

- *Sukaldariren / Sukaldariaren* janaria primeran dago.
- *Karlosena / Karlosen* anaia oso jatorra da, meriendatzera gonbidatu gaitu.
- *Gurasoren / Gurasoen* autoa *errepidearen / errepideren* ondoan dago aparkatuta.
- *Norena / Noren* da hor apalean dagoen koadernoa? *Zure / Zurea* ala *nirea / nire*?
- Ez dakit lurrin honek zein *lorearen / lorearen* usaina duen, baina oso ona da.